

Elkarrizketa Iñaki Martínez de Lunari

Iñaki Martínez de Luna EHuko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Soziologia II Saileko irakaslea da. Soziolinguista honen ikerketa-ibilbidea, batik bat euskararen egoera aztertzen zuzendu da eta, besteak beste, gazteen eta eskoletako ikasleen arteko erabileraren inguruko ikerketak egin ditu. Horrez gain, Arabako Foru Aldundiko eta Baionan dagoen Euskararen Erakunde Publikoko euskararen aholkularitza-batzordeetako kidea da.

Otsailaren 21ean ama-hizkuntzaren eguna dela eta, elkarrizketatu dugu Iñaki Martínez de Luna, gai honetan aditua.

1.- Nola ari dira aldatzen ama-hizkuntzari buruzko datuak Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAEko) gazteen artean?

Lehen hizkuntza euskara dutenen proportzioa igotzen doa, eta hori bi kasu ezberdinetan: lehen hizkuntza euskara baino ez dutenen kasuan, batetik, eta euskara gehi gaztelera, biak ala biak, dituztenen artean, bestetik.

Adibidez, 1986tik 2006ra bitartean, lehen hizkuntza euskara dutenen portzentajea %24tik %36ra igotzen da 5-9 urte bitarteko neska-mutikoengan. Alegia, 12 puntuko igoera gertatu da 20 urte horietan. Egia da joera hori umeengan nabarmenagoa dela, baina gazteen artean ere gertatzen da.

2.- Ama-hizkuntzak eragiten du gazteen euskararen erabileran?

Bai, argi eta garbi. Kontuan izan behar da lehen sozializazioa –batez ere familian burutzen dena- dela gizakiarengan gehien eragiten duena. Sozializazio horretan hiru osagai mota daude: kognitiboak, afektiboak eta identitarioak.

Hizkuntzarena, sozializazio horren zati bat da; hau da, hizkuntza transmititzea (dimentsio kognitiboa), hizkuntza horren aldeko sentimenduak umeei helaraztea (dimentsio afektiboa) eta, azkenik, familiaren eta norberaren hizkuntza dela sentiaraztea (dimentsio identitarioa). Horretan guztietan familiak duen eragina izugarria da.

3.- Zelako eragina izan dezake euskararen erabileran beste hizkuntza batzuk ere ama-hizkuntza izateak?

Bi eragin ezberdinak eta kontrajarriak, nonbait. Hizkuntza bat baino gehiago txiki-txikitatik ikastea aberasgarria izan daiteke, baldin eta euskararen transmisio osoa bermatzen bada. Hau da, sozialki mugatua eta bigarren mailako hizkuntzat hartuta dagoenez, euskara beste hizkuntza baino gehiago zaindu behar da familian, bere egoerak aldeko baldintzak eta neurriak eskatzen ditu.

Familiaren transmisioan hori garbi izan ezean eta euskara eta gaztelera berdinean erabiliz gero, umeak erdararantz joko du. Hortaz, txikitan bi hizkuntza ikastea, ederto!... baldin eta hizkuntzen arteko *ustezko oreka* horretan ez bada erortzen eta euskararen transmisio osoa bermatzen bada.

Bestalde, etorkinen kasuan egoera ezberdinak daude: lehen hizkuntza gaztelera dutenena eta gainontzeko hizkuntzak dituztenena. Lehenak errazago integra daitezke hemengo gizartean gaztelarari esker, hasiera batean euskararen premiarik sentitu gabe. Dena den, kasu guztietan ume etorkinek euskara ikasteak ate gehiago zabaltzen die harreman sozial eta pertsonalei begira zein, aurrerago, lanari begira.

4.- Nola hautematen duzu euskararen erabileraren bilakaera gazteen artean?

Hizkuntza baten erabilera ez da modu abstraktuan gertatzen, baizik egoera jakinetara estuki lotua. Alegia, familian erabiltzen da edo lagunekin, eskolan edo aisialdian, eta abar. Beraz, egoera zehatzez jardun behar dugu.

Familiaren erabileran, adibidez, euskara hutsaren erabilerak bere horretan dirau 1991tik 2006ra bitartean: %12 inguru. Denbora tarte berean, euskara eta gaztelaniaren, hizkuntza bien erabilerak %8tik %10era igo da. Mugimendu gutxi, beraz, baina ulergarria; izan ere, gurasoak euskaraz ez badakite, familian erdara erabiliko da, ezinbestez, eta guraso berri asko euskaldundu gabe daude oraindik.

Gazteen erabilera gurasoek baldintzatzen ez dutenean, aldiz, ezberdina da; adibidez, gazteen kaleko hizkuntza erabilera. Egoera horretan, Euskal Herri osoko datuek (ez, EAEkoek) erakusten duten igoera nabarmena da: 17 urtetan (1989-2006) 6 puntu irabazi da, %8tik %14ra igaroz. EAEko datuek oraindik hazkunde handiagoa erakutsiko lukete, seguru asko, Euskadi erkidegoko aurrerapausoak Nafarroakoak eta Iparraldekoak baino sendoagoak baitira.

5.- Gurasoek ume eta gazteen euskararen erabileran eragin dezakete?

Bai, besteak beste aldeko edo kontrako joera bultzatuz. Izan ere, arestian esandako sozializazio horren baitan hizkuntza balioak eta portaeraren eredia ere transmititzen dira; bestela esanda, gurasoen eta helduen portaeraren bitartez irakasten da *nola/noiz/norekin* erabili behar den hizkuntza bat edo bestea. Era horretan hizkuntza bakoitzeko *erabilera mota* eta *leku egokia* zein diren finkatzen doaz umeengan, inkontzienteki.

Adibidez, guraso euskaldunek umeei euskaraz egin bai, baina euren artean gaztelera erabiltzen badute, transmititzen duten ezkutuko mezua zera da: *euskara umeentzako hizkuntza da*. Nola ume guztiek helduen portaera nahi duten imitatu *nagusi sentitzeko*, erdararantz joko dute. Hortaz, umeei euskaraz irakasten diegun era berean, hizkuntza horrekin *nola jokatu* ere jakinarazi behar zaie, gure jardunaren bitartez.

6.- Zure ustez, zein estrategiak izango lirake egokienak edo proposenak gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko? Badago beste herrialdeetan esperientzia interesgarririk?

Lehen esan bezala, hizkuntza baten erabilera egoera jakinetara doa lotuta. Beraz, erabilera areagotzeko, egoera jakin horrek hizkuntzaren erabilerarako dituen baldintzei erreparatu behar diegu. Gaur egun ume euskaldunak *ekoizteko fabrikak* (familia eta hezkuntza sistema), ajeak aje, txukun dabilta, oro har. Baina, *ekoiztutako* euskaldun horiek gizartean ez dute irtenbiderik, helduen gizartea erdaraz antolatua delako. Gizarte horretan (lantokietan, adibidez) txertatzen ari diren gazte euskaldunek erdaraz egin beharko dute, nahitaez, taldeen funtzionamendua erdaraz bada.

Beraz, ume eta gazte euskaldunentzat *egoera euskaldunak* sortu behar dira; hau da, egoera batzuk non euskararen erabilera *hobetsita* eta *nolabait saritua* den. Bestela, gaztelarak duen nagusitasuna kontuan hartuta, erdaraz egingo dute. Bestela, egoera paradoxikora irits gitezke; adibidez, lantalde batetan denak euskaldunak izanda ere, denek edo gehienek erdaraz jardutea.

Eraldaketa hori bultzatzeko ez dago kanpora joan beharrik, hemen egindako bidea emankorra da-eta. Egia da kanpoan badaudela eredu izan daitekeen esperientziak, baina bertan ere badago zer ikasi eta ugari.

Hemen falta zaiguna, batez ere hauxe da: dugun esperientzia aberats horretaz hausnarketa sakona eta zintzoa egitea eta, hortik abiatuta, euskara biziberritzeko konpromiso sendoak hartzea.

Artikulu honetan aipatutako datuak ondoko iturrietatik atera dira:

- [Eusko Jaurlaritzaren “EAS sistema”](#) (Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema)
- Soziolinguistika Klusterreko [Bat Soziolinguistika aldizkaria](#) 64 (2007):

Bestalde, gai honekin lotuta, [Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa](#) izeneko ikerketa ere kontsulta daiteke.